

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Abendualdiko 1. Igandea

2009 Azaroak 29 (C urtea)

Patxi Otamendi

Jeremias 33, 14-16

1 Tesalonikarrei 3,12 - 4,2

Lukas 21,25-28. 34-36

- Une kalapitatsu en iragarpena. Mundu hau gainditua eta birrindua izango denaren aurreikuspena. Indarkeria ankerraz eta dramatikoaz nagusituko denaren itxura du. Zaila egiten zaigu onartzea munduaren eboluzioak hain egoera nahasiko bidea har dezakeenik. Eszenategi apokaliptikoa dela diogu. Bai, baina irudi hori baliabide literario bezala erlatibizatu ostean zein da iragarpen honen mamia?

Deskribapen apokaliptikoak argi esan nahi digu mundu honen atzean, ala sakonean, beste bat sortzeaz eta hedatzeaz dagoela. Mundu honen erraietan beste baten hazi indartsua landatua dagoela. Ernetzen ere hasia dela, nahiz eta lur-azpiko balitz bezala diharduen. Hitz batean, garai berriak bidean daudela. Eta aldaketak ez direla makalak izango.

- Historiaren zenbait alditan mundua berritasun baten behar larrian dagoela sumatu izan da. Etsipenarekin batera itxaropena ere landu izan da. Irtenbidea: etortzeko dagoena hobe izango denaren itxaropena.

Gehienetan historiaren aurrerakuntza pausuz pausukoa sumatzen dugu. Geldoa. Ez, behinik behin, bultzada azkarrekoa. Baina egoera erabat okertzen denean, nahasmena nagusitu denean, aldaketa trinkoak nahi izaten dira.

Nolakoa izango da Jaunak dakarkigun aldaketa? Iraultza trinkoa? Urratsez urratseko aldaketa?

Iraultza soziala, ala norbanakoen hobekuntza?

- Hasi zenari bukaera ematera etorriko da Kristo. Itxaropen guztiak Kristoren Espirituaren arabera moldatuak izango dira. Bi mila urte daramatzagu horren zain, eta ez da erraza tentsio hori mantentzea. Bitartean, sinestunoi gurean jarraitzeko joerak harrapatzen gaitu, zerumuga urrun antzemanaz. Jainkoaren agenda ez baitzaigu ezaguna.

Etortzeko, gauzatzeko, garaitzeko den horretaz ohartarazten digu Abendu-aldiak. “Egon erne eta adi” diosku Jesusek ebanjelioetan. Hau da, Jainkoaren Erreinua guk uste baino tamaina kementsuagoan ari da zabaltzen eta egikaritzen. Zenbaitetan era apal eta ikusezinean izango da. Zuzentasuna eta ongia lortzean dator Jainkoa.

Gaia da gauzak gure neurritxoan doazenean ez dugula Jainkoaren beharrik. Dugunarekin ia aski dugu.

Baina estu eta larri gabiltzanean, zer? Orduan bai irrikatzen dugula Jainkoaren laguntza.

- Kristoren etorrera abian dela kontutan hartzea eztenkagarri suerta dakiguke kristau bidean. Zergatik? Itxaropena beste eremutan jartzeko arriskua daukagulako. Itxaropena Jainkoaren nahian jarri orde, eguneroko gure nahietan jartzen ohitura gaitzkeelako. Kristau lehentasunak orde, eskura ditugun arazoetan gera gaitzkeelako. Edo gogoko zaizkigun ekintzetan jar genezakeelako, eta ez Jainkoagandik jaso ditzakegunean.

Judutar erlijioaren muineko osagarria zen etortzeko den Jainkoaren salbamena itxarotea eta desiratzea. Guk agian maila hori apaldu edo espiritualizatu egin dugu.

- Jainkoak bere lana egingo duenaren lekuko izatera gaude deituak. Jainkoaz ezer gutxi itxaroten den garai honetan, geuri dagokigu Jainkoak badaukala guri zer emateko agertzea. Itxaropen hori ez da ezezaguna geratuko. Gure albokoek konturatuko dira Jainkoak gure gutxia norabait bultzatzeko itxaropena sortzen digula. Beste hitzetan: ez dela soilik gure onberatasun moralaren adierazgarri txatxua.